

## Azurmendiren ikertzaile baten bakeak eta gerrak

*Haritz Azurmendi Arrue*

Filosofian lizentziaduna eta Gizarte Zientzietan doktorea

Artikuluaren izenburua, berez, Joxe Azurmendi Kongresurako prestatutako hitzaldiari jarritakoa da. Irakurleak pentsatu behar du prestaketekin buru-belarri eta talde-lanean murgilduta genbiltzala hartu zuela forma hitzaldi hark, Kongresuaren azken egunean eta egunik kargatuena atzean utzi berri. Azurmendiren nazio ideiei buruzko tesia egin bitartean pilatutako hainbat gogoeta bildu zituen hitzaldiak, eta datorren artikuluak ere horixe egiten du, zenbait ideia garatzeko tartea hartuta.

Gaia aukeratzea ez zen erraza izan, ordea. Berez, bide errazetik jo eta egin berri neukan tesiaren laburpena azaldu nezakeen, Azurmendiren obrak eskain dezakeenaren beste lagin bat eman eta hari buruzko ikerketaren adibide bat eskaini. Bezperako egunak ekarriko zuen ideia zaparradarekin eta JAKINen 233-234. zenbaki bikoitzean atara zen artikularekin nahikoa izango zela pentsatu nuen, ordea. Hala ere, konbentzitu ezinik ibili nintzen apuntatuta neuzkan sentsazio eta bizipen horietatik hitz egiteak mereziko ote zuen. Erabakitzeke indarra koadernoan ondo jasota neukan pasadizo batek eman zidan; egoera bertsuan egonak ziren beste batzuk ere antzeko bizipenak izan zitzaizkela eta horrek esanahiren bat behar zuela iruditu zitzaidan.

Gogoratzen nuen, tesia hasi berritan, Donostian bertan, Alaitz Aizpuruk hitzaldi bat eman zuela Txillardegiri buruz. Han kontatu zuen Txillardegi bera Parisen bizi zenean Sartre leitu eta leitu aritu zela eta duda-mudatan egon ohi zela haren atea jo edo ez, harremana bilatu edo ez bilatu... Nonbait errespetua ematen zion Txillardegiri halako pentsalariaren denbora hartzeak. Segidan, oker ez banago, Aizpuruk bere egiten zuen sentsazioa: bera ere Txillardegiren atea jo edo ez zalantzan egona omen zen behin baino gehiagotan. Ordurako ikerketa lanetan murgilduta zegoenez, Txillardegirekin hitz egiteko aukera ona ikusten zuen, baina erreparoa ematen zion.

Inondik ere ezaguna zitzaidan sentsazioa, eta zer pentsatua eman zidan. Konturatu nintzen hor bazegoela zer bait; distantziak distantzia, izenak aldatuta ere, bizipen konpartitu batzuk geneuzkala aurreko belaunaldiarekin, 56ko belaunaldiarekin, harremantzerakoan. Irudipen hori, gainera, areagotu egin zitzaidan Azurmendiri buruz fakultateko gainerako irakasleekin edo beste hainbatekin hitz egiterakoan: hainbat borroketan lagun, ikaskide, lankide, irakasle... guztiek zuten hurbileko harremana berarekin. Gurea, berriz, Azurmendik unibertsitate eskolak utzi osteko lehen promozioa izan zen filosofian. Eten bat nabari nuen, Txillardegirengana, Azurmendirengana, ordura arte ez bezalako hurbilpenak ziren zetozenak. Eta hala baieztatu zidaten

Katedraren bueltan bildutako lehen ikasle-ikertzaileek ere: 56ko belaunaldiarekiko distantzia dezente hazi da hamarkada batean.

Argi gera dadin: ez nuke nahi inork hori kexa moduan hartzerik. (Ezin dut kexatu, gainera, Azurmendik eta bere belaunaldikide askok tratu oso abegikorra eman didatelako gerora.) Besterik gabe, konstatazio bat da, belaunaldien segidan gertatzen den zerbaitena. Ezinbestean gertatzen da gainera, eta hala ulertu beharko genuke, belaunaldi berriek begi berriekin irakurtzen dituzte aurrekoak.

Azkar esateko, *Azurmendi* irakurtzen genuen guk, ez *Joxe*. Distantzia hori berandura arte ez zitzaidan laburtu. Ikasle-irakasle, lankide edo asteroko zutabegilearen eta irakurlearen arteko tratua eta ikertzaile-ikertuaren artekoa desberdina da. Nik uste, 'gure' (Kongresuan *Ikertzaile Berri* deitu genuen figura horren) egoeraren berritasuna honek dakarrela: obrara lehenago gerturatzen gara pertsonarengana baino. Eta horrek nahitaez ikuspegi berriak ekartzen ditu. Distantzia hartzea errazago egiten du eta tratua pertsonala eta obraren irakurketa ere bereizten laguntzen du, ezinbestean.

Hori dena anekdota hutsa izan zitekeen, baina zerbait aldatzen ari dela ere erakusten zuen. Sentsazio horietatik abiatuta zerrendatu nituen azken lauzpabost urteetan sortu zitzaizkidan burutazio batzuk, Azurmendiren ikertzaile *baten* zenbait bake eta zenbait gerra, alegia.

### **Lehenengo bakea: sare itzel bat**

Azurmendi ikertzearen bake handienetako bat lehenengo momentutik laguntzeko sare itzel bat topatu izana da. Jendea pozik eta laguntzeko prestutasun osoz agertzen zen. Interesa eta halako gehiagoren beharra adierazten zizkidaten. Pentsatzen jarrita, hori espero zitekeen Azurmendiren gertuko lagunaren partetik. Eta, noski, hurbiltasun handiena horien partetik etorri zitzaidan. Paulo Agirrebaltzategik aipamen berezia merezi du, beste hainbat gauzen artean, tesia goitik behera irakurri zuelako errekorrak hausteko moduko denboran. Horiez gain, ordea, printzipioz Azurmendiren hain gertuko ez ziren askok ere babesaren erruz ematen zidaten. Eskertzekoa da, pentsamendu mailako errezeloak gorabehera, sarea josten lagundu izana. Argi esateko, beraz: lurra prest dago eta emankorra da. Eta, gainera, lurrean ildo bakan batzuk ireki dituzten bidegile horiek laguntzeko prest daude.

Tesi-ikertzaile batentzat hori zenbateraino den garrantzitsua aipatu beharrik ez dago. Berez tesia gauza bakartia izaten bada eta askotan norabidea galtzera bazaramatza, halako sare bat inguruan nabaritzeak sekulako bultzada ematen du. Zure bulegoko lantxo horri handik kanpo ere zentzua ematen laguntzen du. Hori guztia, berria ez bada ere, azpimarratu beharrekoa iruditzen zait. Antonio Casadok egun berean aipatutako pentsamenduaren marruskadurak indar gehiago askatzen du horrelako plazetan, inpaktu faktorearen ezein eskaletan baino. Unibertsitatearen eta 'kulturgintzaren' (deitu nahi bezala) arteko zubi hori izango da horrek guztiak daukan baliorik handienetakoa.

Kongresua sare hori josten jarraitzeko plaza izan zela esan daiteke. Tradizio, ibilbide, lanbide, eskola eta interes guztiz desberdinetako jendea bildu zen bere gogoz San Telmon, hiru egunez, euskaraz eta euskaratik pentsatzeko. Eta horren meritua

lehen-lehenik Azurmendirena berarena da, jakin duelako polemikekin ere zubiak eraikitzen. Baina bertaratuek eurek ere badute nahiko erru horretan, bakoitzak beretik gehitzeko asmotan etorri zirelako denak. Horregatik, sare itzel hori iraunarazi, zaindu eta areagotzeko ardura dator orain eta bakoitzak bere partetik heldu beharko dio ardura horri.

### **Lehenengo gerra: leialtasun sokatira**

Sare horrekin lotuta uler daiteke lehenengo ‘gerra’ ere. Esana gera bedi, hala ere, zorionez ez dudala askotan borrokatu behar izan. Dena dela, azpimarratu behar da: ikertzaileen autonomia sakratua da. Hori berez horrela izango da edozein ikertzailearen kasuan, baina garrantzi handiagoa hartzen du ikertzaile berriak agertzen ari diren honetan. Ez baitago sobran gogoraraztea, Azurmendik askotan idatzi izan duen bezala, belaunaldi bakoitzak bere irakurketak egin ohi dituela, neurri batean aurrekoei jarraituz eta beste batean aurrekoekin apurtuz.

Oso gauza humanoa da eta ziurrenik guztiz saihestea ezinezkoa izango da, baina ahalegina egin behar da ikertzailea norbere ideietara lerrokatzen ez saiatzeko. Lehen esan dudan bezala, ziurrenik ikertzailea testuekin arituko da ia beti. Baina espero izatekoa da hari laguntzera datozen hainbatek tratu pertsonala izatea ikertzailea lantzen ari den autoreekin. Ekidin behar da halakoetan zuzeneko bizipen pertsonal horietatik hartutako inpresioak ikertzailearen ideien gainetik jartzea. Hitz bitan, kontuz nagusikeriarekin. Ikertzaileak bere bidea egitea izan behar dugu beti helburu.

Eta autoreei ere euren buruekin kontraesanean erortzen utzi behar zaie. Lagunartean behin halako esan zuela, «nik ezagutzen nuen eta hori ez luke sekula esango...», behin ez dakit nongo hitzalditan hura defendatu zuela... Horrelakoak ikerketarako datu ederrak dira, noski; baina ikertzaileak jakingo du ondoen datu horiek nola kudeatu. Ikuspegi desberdinen arteko elkarrizketa baino seinale hoberik ez da egongo ziurrenik.

Errepika dezadan gerra hori ez dudala ia batere jasan. Gehiago izan nahi du aurreikusitako arrisku batzuen ohartarazpena beste ezer baino. Eta datorrenak ere hala izan nahi du, ez salaketa, ohartarazpena baizik.

Jakin badakigu ondo gure historia hurbilean zenbat borrokatxo eta haserre, etiketa nahiz buruhauste izan diren (izan dituzuen). Egia esate aldera, ikerketan zehar asko dibertitu naute topatu ditudan polemika sumindu gehienek, eta ez dut esango ezkutatu behar direnik. Haustura horietatik gauza interesgarri askoak ikasten dira, eta zenbait gako ulertzeko modua ere ematen dute. Horiek ere datu esanguratsuak dira ikertzailearentzat. Baina ikertzailea leialtasun sokatira batean jartzeak ez lioke inori mesederik egingo. Eta uste baino errazagoa da horretan erortzea: aipatutako nagusikeria, lubakiak hautaraztea, ikergaiarengatik pentsamoldeak esleitu eta exijitzea... Buruz ari naiz, baina Azurmendik Orixerri buruzko liburuetako batean esaten zuen eztabaidak eztabaida eta kontraesanak kontraesan, hurrengo belaunaldiek segidak ikusiko zituztela ziurrenik eurek hausturak ikusten zituzten lekuan. Nahiko jarrera

egokia iruditzen zait. Belaunaldi bakoitzak izaten ditu nahikoa haustura aurrekoenak herentzian hartzeko.

### **Bigarren bakea: istorioetatik kondairara**

Horrek ez du esan nahi ikertzaileari bizkarrean kolpetxoak eta animoak bakarrik eman behar zaizkionik. Tesian zerbaitekin gozatu banuen, elkarrizketak egiten izan zen, zalantzarik gabe: elkarrizketatu batzuk Azurmendiren hurbilekoak ziren, beste batzuk ez hainbeste eta bateren bat haren izena justuan ezagutzen zuena ere bazen... Eta, hala ere, guztiek eman zidaten gure belaunaldiak bestela jaso ezingo lituzkeen bizipenen berri.

Konturatuta nago norbere bizipenak eta istorioak kontatzeak erreparoa ematen diela batzuei. Are gehiago: batzuek bizi izan dutena kontatzeko adinakoa ere ez dela pentsatzen dute. (Eta horren atzean Alaitz Aizpuruk kongresuan bertan planteatu zituen gako dezente egongo dira.) Halakoetan, Stefan Zweigek memoriak nola justifikatzen dituen gogoratzen naiz: bere buruaz idazteak berez erreparoa ematen bazion ere, bizi izan zuen periodo historikoa kontuan hartuta eta ikusitako gorabehera guztiak ikusita azkenean legitimitatea aitortzen ziola lekuko moduan hitz egiteko. Biloba paperean jarriko naiz orain, eta esango dut, Frankismoa, ETA, euskararen batasuna, kulturaren eraberritzea eta beste auskalo zenbat borroka bizi izan ostean, ez direla bi mundu gerra izango, baina isiltzen den batek baino gehiagok zer kontatua izango duela. Vienan jaio gabe ere.

Asko hitz egiten da transmisioaz eta horren garrantziaz, baina kontatu ezean nahiko lan izango dugu transmititzen. Gainera, belaunaldi berriak ere ari dira transmisio horri buruzko gogoetan: Aizpuruk egindako gogoetek itu-itudan jotzen dute gaia. Horregatik, ia-ia eskatu behar dizuet memoriak idazteko, lekukotzak emateko, modu batean edo bestean gauzak kontatzeko. Ez dakit ohartzen garen horretarako dugun premia: beste herri edo kultura batzuetan pelikulak eta beste mila istorio ia berez sortzeko adina aurrekontu duten bitartean, gu mugikorreko grabagailuarekin ea nori zer lapurtuko gabiltza kasik.

### **Bigarren gerra: normaren aurka normaltasunez**

Izan ere, ezin dugu gure burua engainatu: ez gaude normalizatuta. Hori gogoratzen dizu unibertsitatean egunerokoak. Egia da, jende asko dago laguntzeko prest, edozein izanda ere bere kargu edo profila. Handik kanpo ere beste hainbeste gertatzen da. Baina unibertsitatearen eta, batez ere, akademiaren inertzia ez dago gure alde. Gaur-gaurkoz euskarazko ikerketa salbuespena da. Salbuespena da euskal pentsamenduari buruzko interesa piztea, zeren salbuespena da euskarazko graduatan ere euskarazko pentsamendua ikustea. Eta salbuespena da interes hori garatzeko bideak topatzea akademiaren baitan.

Tesia euskaraz eta euskal gaiez egiteak dituen gerrez makina bat orrialde bete daiteke. Besteak beste, topatu behar duzu zuzendari bat ondo gidatuko zaituena, baina

euskal pentsamenduan aditua izango dena; curriculum ona daukana, baina horretarako euskal pentsamenduaren ikerketa alde batera utzi behar izan duena, ez delako errekonozitzen. Akademian argitaratu egin behar da eta, gainera, argitaratu behar da mundu mailan, plano «unibertsalean». Eta plano unibertsal *horretan* euskararik ez dago. Eta euskal gaiak ere nekez daude, zeharka eta itxuraldatuta sartu behar baitira. Nazionalismoari buruzko gaietan nahiko erraz hitz egin daiteke euskal gaiez, betiere marko orokorra zalantzan jartzen ez duen ikuspegi erregionaletik gehiegi ez aldentzeko gerria okertuz. Literaturan ere kasu pintoresko bat gehiago bezala ez agertzeko lanak egongo direla pentsatzen dut. Filosofia akademikoan, berriz, euskarazko pentsamenduak nahiko lan izaten ditu badenik ere erakusten.

Hori ikusita, gutxien-gutxienik, gogoeta piztu beharko litzaiguke ea akademia irentsi duen argitalpen antzuen sorgin-gurpil horrek zer mesede egiten dion unibertsitateari, batez ere unibertsitateak komunitatea zerbitzatzea nahi badugu. Pentsatu beharko da nolatan eusten diogun oraindik Azurmendiren curriculum hartu eta inpakturik<sup>1</sup> sumatzen ez dion neurketa sistema bati. (Benetan ikustekoa litzateke kalifikazio agentzien neurketa Azurmendiren curriculumaren inpaktuaz.)

Eta, batez ere, ikertzaile gazteei mezu kontrajarriak emateari utzi beharko zaio: ez baita oso sinesgarria euskarazko pentsamendua akademikoki ikertzearen garrantzia goretsi eta biharamunean hutsaren hurrengo gisa balioestea unibertsitatean bertan. Guztiz kontraesankorra badirudi ere, gaur-gaurkoz, euskal gaietan aditu batek aukera gehiago du nazioarteko irakurletzetan erromesaldian urteetan ibiltzeko, etxean ikertutakoa transmitituz jarduteko baino. Ez zaie inolaz ere garrantzirik kendu nahi irakurletzei, baina gaur egungo egoerak etxea teilatutik eraikitzearen antz handia du. Eta teilatuak aterpea ematen du, baina berez etxerik ez du sortzen.

## **Pauso eraginkorren bila**

Hori guztia ez dut ekarri zuei penak kontatzeko edo denon artean negar egiteko. Alderantziz, uste dut esandakoak ematen duela Joxe Azurmendi Katedrak egin beharreko lanen neurria. (Katedratik harago gogoeta orokorrago bati ere eragiteko balio lezakeela iruditzen zait gainera, eta, kongresuaren ikuspegitik aldentzen bada ere, agian hor dago premia biziena.) Katedrak sortu beharko du dauzkagun kezkak bideratzeko egitura bat, dauzkagun auziak lantzea ez dadin izan inoren ikerketa-bidearen kalterako. Lan egin behar da ikerketa horiek balioa eduki dezaten gure testuingururako, eta errekonozimendua izan dezaten, ezer baino lehen, gure artean; eta hortik abiatuta unibertsitate mailan. Hau da, ezin dira kontrajarri euskaraz ikertzea, euskal gaiak euskaldunentzat jorratzea eta unibertsitate mailan jardutea; bestela beti egongo gara kondentatuta akademiaren errebaletan ibiltzera, *case study* pintoresko moduan (are etxean bertan ere zenbaitetan!).

Egiteko hori guztia erraldoia dela ondo dakigu. Berez, infinitura luzatu behar luke kultura bizi baten azterketa jarraituak. Horretaraino joan gabe ere, gogoratzen naiz tesi defentsan aurrera begirako lanen aipamena sartu nahi izan nuela eta zuzendariak begi

onez esan zidala luzeegi joko zuela. Hemen aipatuko ditut orain, jorra daitezkeen mila bideen arteko adibide gisa.

Esate baterako, Azurmendiren obrara mugatuta soilik, kongresuko ostegunak eman zuen lagin bat hor atzean dagoen potentziala sumatzeko. Mahaietan jorratutako gai nagusiaren azpian, ikertzaile bakoitzak ekarri zuen ikertzen jarraitzeko ildo posible bat. Hori gutxi ez eta eztabaidak ere sortu ziren. Ziurrenik horixe izango da Azurmendiren lanari zuku gehien ateratzeko modua: batzuek zati bat hartu, besteek beste nonbait jarri arreta, hirugarrenek osorik kritikatu... Gorespen hutsalak baino hobeto doazkio zentzuzko eztabaidak Azurmendiren lanari.

Lehenengo ildo posiblea Azurmendiren obran sakontzea bazen, bigarrena transmisioari buruzko kezka da. Azurmendiren belaunaldian egon diren harremanak, eztabaidak eta proposamenak sakondu eta ezagutzea. Eta hor Alaitz Aizpuruk eman zuen gakoa berriro: nola egin behar dugu belaunaldi horren lanak etorkizunean zentzua izan dezan, elementu historiko soil izateaz aparte?

Lan handia dago egiteko. Zorionez, ikertzaile solte batzuk egon dira aurrez ere, eta ziurrenik gero ere etorriko lirateke solte-soltean. Baina, indar bakanak biderkatzeko, egitura sendo bat behar da, bista etorkizunean jarriko duena eta aipatu diren korapilo horiek zainduko dituen. Apustuak sendoa behar du, gainera, horren emaitzak ez baitira gauetik goizera atzematen eta arnas luzeko lana eskatzen baitu.

Zer egina dagoen bezalaxe, nork egina ere badago. Hemen nabarmendu nahi ditut berriro Ikertzaile Berrien bi mahaiak eta kongresuan egon ez ziren beste zenbait ikertzailearen lana. Normala baita oraindik ere entzutea gazteak ez direla gai hauetaz interesatzen, lehengoan aldean oso apalduta dagoela grina... Eta esan nahi dut, zailtasunak zailtasun, gazte horiek badaudela. Badaude, nahiz eta gutxi eta gaizki hitz egiten zaien euskal pentsamenduaz, nahiz eta euren lana saltzeko merkaturik okerrenetakoa izan. Susmoa daukat garai bateko dena-egiten-zuten gazte militante horiek, XXI. mende gatzil honetan, gure antz handiagoa izango zuketela. Ordukoak hainbeste ez ziren izango eta gaurkoak hain gutxi ere ez, seguruenik. Epika gutxiagorekin, agian, baina gauzak mugitzen dira gaur ere.

Zer egina badago, nork egina ere bai. Premia larriena nondik egina egonkortzea eta indartzea izango da. Martxan jarrita dauden baliabideak elkarri laguntzen jarri eta indarrak biderkatzea. Pentsamendu mailako eztabaidak areagotzeko oinarritzko egiturak adostu eta zabaltzea. Kongresuan bildu zen komunitatea hazi (dauden gainontzekoekin harremanak sendotuz) eta iraunarazi egin beharko da. Euskal pentsamendua eta euskarazko ikerketa beharrezkoa dela lehenengo sinetsi eta gero errekonozimendua eman. Errealki eman, hitzez baino gehiago. Horretarako, jakina da gaur-gaurkoz norma ez dagoela gure alde; bide erraz eta laurik ez dagoela gure aurrean. Eta zer? Noiztik sortzen dira ur-jauziak malkarrik gabeko lekuetan?

## *Oharrak*

1. Galde daiteke inpaktu hori zer den ere, esana baitago jada ingeles unibertsalean argitaratutako artikulu asko ere inoiz ez direla irakurtzen (<http://theconversation.com/academics-can-change-the-world-if-they-stop-talking-only-to-their-peers-55713>).

**JAKIN**  
Martin Ugalde Kultur Parkea  
Gudarien etorbidea, 29  
20140 ANDOAIN  
943 21 80 92  
[jakin@jakin.eus](mailto:jakin@jakin.eus)  
[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)